

JUSTIFIKAGARRIA AL DA ANIMALIEKIN ESPERIMENTATZEA?



Miren Arsuaga, Unax Elorza, Beñat Ezpeleta eta Aimar Lazaro

AURKIBIDEA

SARRERA:	3
IKERKETAREN LABURPENA:	4
ABSTRACT:	4
ARAZOA:	5
HIPOTESIA:	5
MARKO TEORIKOA:	6
HASIERAKO ESPERIMENTUEN HELBURUA:	6
ADIBIDE EZAGUNAK:	7
ESPERIMENTAZIORAKO ANIMALIAK ZAINTEKO ETA ERABILTZEKO ARAU ETIKOAK:	8
METODOLOGIA:	9
PROZEDURA:	10
HAUEK DIRA GALDERAK:	10
ONDORIOAK:	12
BIBLIOGRAFIA:	14
BIDEO BATZUK:	16
ERANSKINAK:	16
Ikerketaren kontzeptu nagusiak:	16
Gure iritzia:	16
Galdetegia:	17

SARRERA:

Zer sentitzen da xanpu pixka bat begietan sartzean? Ez da batere atsegina ezta? Ba imajina ezazu hau irenstea eta begietara kopuru handiak sartzea behartuko bazintuzte.. Horrelako frogak eta askoz ere desatseginagoak (nolabait esateagatik) egiten dizkiete egunero untxi, txakur, sagu eta animali askori.

Baina ekintza *bihozgabe* hauek ez dira XXI. mendeko gauza. Kristo aurreko III. eta IV. mendeetan hasi zen gizakia animaliekin frogak egiten (*Cultura Científica, 2015*).

Urteak aurrera joan ahala, nabarmenagoa eta arruntagoa izaten joan zen, gizartean ondo ikusia egon arte. Gaur egun, urtero, 115 milioi animalia baino gehiagorekin, ornodunak bakarrik kontuan hartuta, esperimentatzen dute gizakiei mesede egiteko asmoz (*Animal Ethics, 2016*). Bertan sartzen dira, besteak beste, gas toxikoak arnastera behartzea, azalean eta begietan substantzia korrosiboak ematea, GIBarekin infektatzea edo garunaren zati bat erauztea.

Bestalde, animaliekin esperimentatzea gizakien bizi-kalitatea eta iraupena handitzeko ahaleginekin lotzen dugu. Hala ere, ikusiko denez, hori ez da kasu gehienetan lortu nahi den helburua. Gainera, kasu horietan ere, animalien esperimentazioari uko egiteko arrazoi etiko sendoak egon litzateke, gizakiarekin egingo ez genukeela adibidez.



IKERKETAREN LABURPENA:

Animalien esperimentatzea izenak esaten duen bezala, animaliekin frogak egitea da, gizakiekin egin beharrean gizartearentzat aurrerapen bat lortzeko xedearekin. Urtero 50 eta 115 milioi animalia artean sakrifikatzen direla estimatzen da. Horrela esperimentu hauek aurrera ateratzeko eta hauen bidez gizakiarentzat onurak lortzen saiatzeko. Lehen esperimentuak K.a. III. eta IV. mendeen artean egin zirela pentsatzen da.

Hau erregulatzeko gobernuak hainbat lege ipini dituzten arren, gaur egun eztabaida handia sortzen duen gai bat izaten jarraitzen du. Hau ikusita, gai honi buruzko ikerketa bat egingo dugu, gizarteak zer pentsatzen duen jakiteko eta baita hainbat ondorio etiko ateratzeko ere.

ABSTRACT:

Animal experimentation is, as its name suggests, the performance of tests on animals rather than on human beings in order to achieve progress for society. It is estimated that between 50 and 115 million animals are sacrificed each year. In order to carry out these experiments and try to obtain benefits for human beings through them. It is thought that the first experiments were carried out between the 2nd and 4th centuries b.C.

Although governments have put in place several laws to regulate it, today it is still a subject of great controversy. In view of this, we will conduct a study on this subject to find out what society thinks and to draw a series of ethical conclusions.

ARAZOA:



Ikusi dugun arazoa, animaliekin ilegalki esperimentatzea da. Esperimentu bat, hipotesi bat balioztatzeko, ezeztatzeko edo babesteko prozedura bat denez, gaixotasunen eremuan adibidez, gehienetan ondo etortzen da esperimentuak egitea. Baina, beharrezkoa al da animaliak, gizakien gaixotasunen munduan sartzea?

Esperimentu horietatik lortutako emaitzak gizarte osoari eragiten diotenez, gai polemiko bat izaten ari da, gehienetan ondorio txarrak dakartzatenak izaki bizidun hauengan, eta batzuetan heriotzaren kausa ere izaten direnak. Izaki bizidun hauek, guztiz ezinbestekoak izaten ari dira ikerketa biomedikoan, gaixotasunen ezagutza aurrera egitea ahalbidetzen digutelako. Hala ere, ezin dugu ahaztu bizidunak direla, eta, beraz, animaliak hobeto zaintzen saiatu eta praktika esperimentalen kopurua benetan behar direneta murriztu behar dugu. Gainera, animaliek esperimentu horietan jasaten dituzten kalteak kontuan ez hartzea, edo garrantzi txikiagoa ematea, soilik gizakiak ez direlako, diskriminazio arbitrario mota bat da.

HIPOTESIA:

Gai honi buruz hausnartzeak kontraesanak sor ditzake, horregatik, jendearen iritzia zein den jakin nahi dugu. Prozesu hau aurrera eramateko inkesta bat egitea erabaki dugu. Bertan gai honi buruzko galderak egingo ditugu gure ingurukoen iritzia jakiteko.

Gure ustez, jendeak bi iritzi mota izango ditu honen inguruan. Alde batetik, bi muturretako ideiak defenditzen dituztenak, hala guztiz ados nola erabat kontra dauden pertsonak. Eta bestalde, beste motatako iritzi bat ere aurkituko dugu, muturrak alde batera uzten dituen eta ideia subjektiboago bat duena. Adibidez, batzuk ez dira guztiz ados egongo, baina beharrezkoa dela pentsatuko dute. Gure ustez iritzi hedatuena, animaliekin esperimentatzea beharrezkoa dela da.

Gainera, etxean animaliak edo maskotak dituzten pertsonak, ikerketa hauei ezetz esango dietela pentsatzen dugu, aldiz animaliekin erlazioa ez duen jendea alde egongo da. Hipotesi honekin ikus dezakegu zein garrantzitsua den bakoitzaren egoera eta beste izaki bizidun batek sor ditzaken sentimenduak.



MARKO TEORIKOA:

HASIERAKO ESPERIMENTUEN HELBURUA:

Gizakia animaliekin esperimentatzen K.a. III. eta IV. mendeen artean hasi zen, helburu zientifiko batekin. Lehenengo esperimentuaren bidez, Alcmeon Crotonak italiarrak egin, animalia baten begiekin guk dugun nerbio optikoaren funtzioa zein zen ezagutu zuen.



Disekzioak egiten zituen animaliangan eta baita gizakiengan ere hau Kalzidio, Kordobakoa lan egin zuen 325 inguruan.

Ondorioz esan daiteke, gaur egungo esperimentuak lehengo esperimentuen helburu berdinekin burutzen ditugula, giza-bizitza hobetzea.

Ikerteta osan zehar argi geratu da animaliak ezinbestekoak direla oraindik ikerteta zientifikorako. 1901az geroztik, Medikuntzako Nobel saridunen % 76k animalien esperimentazioa izan dute. Iraganean mota guztietako animaliak erabili ziren arren, gaur egun erabiltzen diren animalien % 95-97 arratoiak eta saguak, arrainak eta hegaztiak dira, eta hauen barruan, laborategiko sagu eta arratoiak dira gehiengoa (Sinc, 2008).

Karraskari hauekin kode genetikoaren %-95 partekatzen dugu, eta, beraz, funtsezkoak dira genetika eta nerbio-sistema aztertzeko. Horri esker, gaur egun anestesia, penizilina (aurkikuntzan ez zen animaliarik erabili, baina bai txertoa probatzeko), intsulina edo egungo txerto asko ditugu.

Eta animalia hauek ondo ezagutu arren ez zaigu axola beraien bizitza sakrifikatzea gurea hobetzeko. Historian zehar milaka sagu erabili dira, eta aurretik esan bezala aurkikuntza asko egin dira haiei esker, baina oraindik behintzat, ez diegu behar bezala eskertu, eta ez diegu merezi duten garrantzia ematen. Baina hau beste animalia espezie batzuekin ez da horrela gertatu, hainbat animalia mota ezagun erabili izan ditugu gure bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Hona hemen adibide batzuk.


ADIBIDE EZAGUNAK:

Laika txakurra → Laika sobietar txakur espaziala, Lurra orbitatu zuen lehen izaki biziduna izan zen. Sputnik 2 espazio-ontzi sobietarrean murgildu, 1957ko azaroaren 3an aireratu eta 1958ko apirilaren 14ean lur hartu zuen. Eta garai horretako zientzialariek uste zuten bezala, Lurraren orbitan hil zen.





Dolly ardia → Dolly ardia lehen ugaztun klonatua izan zen. Ugaztun heldu baten zelula batetik abiatuta eta nukleo-transferentzia izeneko prozedura (klonatu beharreko zelularen material genetikoa espezie bereko zelulan sartzean datza) erabilia. 1996 an klonatu zuten eta 2003. urtean hil zen.



Pavlov-en txakurrak→ Medikuek errusiarrek, erreflexu kondizionatuak existitzen zirela demostratu zuen txakur hauekin egindako esperimentuen bidez. Aurkikuntza horrek eragin handia izan du ikaskuntza nola egiten den ulertzeko eta psikologiaren jokabidearen eskola garatzeko.



NIM CHIMPSKY→ Noam Chomsky zientzialariak hainbat tximpanzerekin frogak egin zituen, guk hitzegiten ditugun hizkuntzak hauei erakusteko nahiarekin, hauen artean ezagunena Washoe tximpanzea izan zen, gure hizkuntzako 350 zeinu ikasi zituen eta.

ESPERIMENTAZIORAKO ANIMALIAK ZAINTEKO ETA ERABILTZEKO ARAU ETIKOAK:



Animalien esperimentazioa ikerketaren zati integral bat da, gizadian sortzen diren arazoak konpontzea helburu duena. Baina horretarako Elviesier informazioa aztertzeko enpresak argitaratutako oinarritzko arau etiko batzuk bete behar dira. Enpresa hau 1880ean izan zen sortua eta gaur egun munduko editorialik garrantzitsuenetakoa da zientziari erreparatuz.

Honek hainbat **artikulu** argitaratu ditu animalien esperimentazioaren inguruan:

Lehen artikulua: Giza ezagutza, eta bereziki biologian, gizakiaren eta animalien medikuntza, aurrerapenak beharrezkoak dira.

Bigarren artikulua: Gizakiak animalia erabili behar du, baina errespetatu egin behar du, bera bezalako izaki biziduna baita.

Hirugarren artikulua: Ikertzaileak kontuan izan behar du animaliak sentimenduak eta memoria duela eta sufritzeko gai dela, hau da, minari ezin diola aurre egin.

Hurrengo artikuluek laborategian esperimentatzaileak bete behar dituen erantzukizunak azaltzen dituzte:

Laugarren artikulua: Esperimentatzailea da animalien esperimentazioaren esparruan egiten dituen hautaketen eta egiten dituen ekintzen erantzulea.

Bosgarren artikulua: Bizidun ornodunen esperientziak, hala nola biopsiak lortzea, biologo batek egin behar ditu, edo haren zuzeneko zuzendaritzapean. Animalia mantentzea espezialista batek kontrolatu behar du.

Seigarren artikulua: Ikerketek gizakiaren eta animalien ongizatea hobetzea eduki behar dute helburu.

Zazpigarren artikulua: Metodo estatistikoak, eredu matematikoak eta “in vitro” sistema biologikoak beharrezkoa denean soilik erabili behar dira, erabilitako animalia kopurua murrizten saiatuz.

Zortzigarren artikulua: Esperimentuak bere ikerketara hobekien egokitzen den animalia erabili behar du, eta espezie bakoitzaren maila sentorialak eta psikikoak ere kontuan hartu behar ditu. Desagertzeko arriskuan dauden animaliak egoera oso oso definitutan erabili ahalko dira. Laborategiko animaliak haztegi espezializatuetatik etorriko dira, oreka biologikoa ziurtatzeko.

Bederatzigarren artikulua: Esperimentatzaileak zaindu beharko du animalia mantentzeko baldintzak onenak izan daitezen eta beharrezko zainketak eman dakizkien, ebakuntzak egin aurretik, bitartean eta ondoren.

Hamargarren artikulua: Animalia alferrikako sufrimendu fisiko edo psikiko oro saihestu behar zaio. Arriskua eta mina minimizatzeko metodo egokiak jarraitu behar dira.

METODOLOGIA:

Gaur egun gizartean dagoen arazoetako bat aztertuko dugu, animaliekin esperimentuak egitea hain zuzen ere. Gai honen inguruko informazioa biltzen hasiko gara, ondoren, hipotesiak eta iritzi desberdinak eztabaidatuko ditugu, gure iritzia argi izan arte. Gero, arazoa gehiago sakonduko dugu, arazo honen hasierara iritsi arte. Azkenik, jendearen iritzia ezagutzeko, inkesta bat egitea pentsatu dugu, honela aurreikusi ditugun ideiak baieztatzen diren ikusteko. Gainera, datu orokor horiekin ikuspegi objektibo bat lortuko dugu, horrela gure hasierako galderari erantzun bat eman ahalko diogu.

Guk erabiliko dugun baliabidea galdetegi bat da, horretarako zenbait gai kontuan izango ditugu. Lehenik eta behin, erantzuleen datu sozioekonomiko gutxi batzuk galdetuko ditugu, hain zuzen ere, sexua, bizilekua eta adina. Honekin urteak pasa ala animalien esperimentuen inguruan dugun iritzia aldatu den ala ez ikusi ahal izango dugu.



Ondoren gizakiak animaliekin bizitzan zehar eduki dituen tratuei buruz galdetuko dugu. Galdera hauek gure ondorioak ateratzeko garrantzitsuak izango direla aurreikusten dugu pentsatzen dugulako galdera hauen erantzunak hurrengo galderen erantzunak baldintzatuko dituztelako, talde desberdinak sortuz.

Gero, animaliekin esperimentatzearen inguruko zeharkako galdera batzuk jarriko ditugu. Galdera hauek izango dira ondorioak ateratzeko egingo ditugun galdera funtsezkoenak, hauen bidez jakingo dugulako erantzuleak gaiarekiko duen pentsaera zein den. Zeharkako galderak egitea erabaki dugu zuzenekoak egin beharrean, normalean galdera hauek erantzutea errazago egiten zaigulako eta baita ondorioak ateratzeko momentuan zuzenekoak bezain baliagarriak direlako ere.

Eta azkenik, pertsonen iritzia jakinda, ondorio zehatz zein orokor batzuk aterako ditugu, galdetegiaren bidez lortu ditugun datuak baliatuz.

PROZEDURA:

Martxoaren 22 eta 23an kalean gure galdetegia erantzuteko prest egon diren pertsonak bete dute. Google inprimaki bat sortu genuen eta bertan hauen erantzunak jaso ditugu. Inprimaki mota honek ere g-mail bidez bidaltzeko aukera eman digu eta hau aprobetxatuz ikastolako irakasle eta ikasle batzuei bidali diegu. Hauek galderak erantzun ondoren googlek berak bakarrik datu eta grafikoak ateratzen ditu eta bertan erantzunak azter ditzakegu.

HAUEK DIRA GALDERAK:

DATU SOZIOEKONOMIKOAK:

Sexua → Gizona / Emakumea / Beste bat

Adina → 16-30 / 31-45 / 46-60 / 60+

Izan al duzu animaliarik etxean inoiz? → BAI / EZ

Baiezkoa bada, zein? → ...



ANIMALIEKIKO TRATUAK:

- Herrian edo hirian bizi zara? HERRIAN / HIRIAN
- Zer nolako harremana duzu naturarekin egunerokotasunean?
HARREMAN HANDIA / HARREMAN NORMALA / HARREMAN GUTXI / EZER
- Kalean animalia bat gaixo ikusten baduzu kezkatzen zara? BAI / GG.B / EZ
- Animalia espezien artean preferentziak dituzu, hau da, nahiago duzu arratoi bat akatu txakur bat baino lehen? BAI / BERDIN ZAIT / EZ
- Zure etxeko animalia bizi salbatzeko bada nahiagoko zenuke hainbat animalia akatu? BAI / EZ

ANIMALIEKIN ESPERIMENTUAK

- Animaliak bakarrik esperimentatzeko eta medikamentuak eta dirua lortzeko balio dute. Ados zaude esaldi honekin? 1-5 era aukeratu. 5-erabat ados / 1-guztiz desados. 1 / 2 / 3 / 4 / 5
- Animaliak medikamentuak lortzeko erabili dira historian zehar, hauen bizitzarekin bukatzen. Jarraituko zenuke? BAI / EZ DAKIT / EZ
- Arlo militarrean animaliak erabiltzearekin ados zaude? BAI / EZ DAKIT / EZ
- Animaliekin esperimentatzearen inguruko berririk entzun al duzu? BAI / EZ
- Baietz bada kezkatzen al zara haietaz?
- Animaliekin esperimentazioa debekatuta egon beharko zen?
- Animaliekin esperimentatzea zientzialarien kontrolpean egiten da?
- Zer animalia dira esperimentazioan aplikatzen direnak? Aukera bat baina gehiago

ONDORIOAK:

Ikerketako erantzunak ikusi ondoren, hainbat ondorio atera ditzakegu. Aldez aurretik argitu behar da, lagin txikia dugula eta ez dela errealitatearen errepresentazio zehatz bat.


Jasotako erantzunetatik, %50 gizonezkoak izan dira eta beste %50 emakumezkoak. Bestalde, hainbat adin tarteen arteko desberdintasunak aztertu ditugu, gazteenetatik hasita, 60 urte baino zaharragoetara.

Guk nabarmendu nahi dugun ideia, jendeak etxean animaliarik izan al duen ala ez da, hipotesian esan bezala gure ustez animaliak dituzten pertsonak desberdin jokatu dute beste izaki bizidunen aurrean.


Honi dagokionez, jasotako erantzunek informazio kontra-esangarria eman digute, ikusi dugunaren arabera ez dago zertan etxean animaliarik eduki behar animalien eskubideak errespetatzeko. Hori islatzen duen galderatako bat ondorengoa da:

- 9. Esan zein puntutaraino zauden ados ondorengo esaldiarekin: "Animaliekiko jarrera, ondasun pertsonalarekin guztiz lotua dago; hortaz, animaliekin errukigabea den norbait ez da pertsona ona izango."

"Animaliekiko jarrera, ondasun pertsonalarekin guztiz lotua dago; hortaz, animaliekin errukigabea den norbait ez da pertsona ona izango."




Animaliekiko jarrera, ondasun pertsonalarekin guztiz lotua dago; hortaz, animaliekin errukigabea den norbait ez da pertsona ona izango.




Grafiko batek etxean

animaliarik izan duen jendea islatzen du, bestea ordez inoiz maskotarik izan ez duen jendearena da. Baina bi grafikoak oso antzekoak dira, bi muturretako jendea ados dago Arthur Schopenhauer-en esaldiarekin, hortaz animalien gain begirune zertxobait dute.

8. Animali espezien artean preferentziak al dituzu, hau da, nahiago duzu arratoi bat akatu txakur bat baino lehen? zutab...




8. Animali espezien artean preferentziak al dituzu, hau da, nahiago duzu arratoi bat akatu txakur bat baino lehen? zutab...



Bestalde, bi grafiko hauetan ikusi dezakegun bezala, gehiengoak, animalien artean preferentziak ditu, nahiago dute arratoi bat hiltzea txakur bat hiltzea baino. Galdera honen bidez ondoriozta dezakegu guztiz irrazionalak garela animalia espezien artean aukeratzeko momentuan. Hau gure ustez espezie hauengan sentitzen dugun gertukotasunaren ondorioa da.

Hau guztia esanda, aipatu beharra dago, ikerketa egin aurretik ez genuela uste animaliangan hainbesteko errespetua zegoenik. Egia da aurre iritzi asko daudela espezie askoren gain, hori argi dago, baina, orokorrean eta galdetegia egiten ari ginen bitartean sentitu genuena sentituta, esan dezakegu gizartea poliki-poliki inguruko beste espeziekin bizikide izaten ikasten ari dela. Gainera, ezinbestekoa da inguruko bizidunekin errespetuz jokatzeara. Beharrezkoak baititugu gure biziraupenerako. Horregatik, etorkizun hurbil zein urrunean horrela jarraitu behar dugu, Schopenhauerrek esango lukeen bezala, animaliangan tratatu desegokiak aplikatu gabe eta moralki pertsona onak izaten.



“Arthur Schopenhauer”



“Zientziaren alde bizia eman zuten saguen omenezko monumentua, *Errusiako Novosibirsk herrian dago kokatua eta Andrey Kharkevich-ek egin zuen.*”

BIBLIOGRAFIA:

- Animal Ethics. (2016) *Experimentación animal* Lortua 2022/02/1 -an: <https://www.animal-ethics.org/experimentacion-animal/>
(Gaiari buruzko ikerketa bat egiten du, honetarako zein animalia erabiltzen diren erakutsiz eta etorkizunari buruz idazten du)
- CEI. (2021) *Ensayos con animales de experimentación y ensayos clínicos: información general y normativas*. Lortua 2022/01/25 -an: <https://www.um.es/web/comision-etica-investigacion/experimentacion/ensayos-animales>
(Animaliekin esperimintatzeari buruzko informazio generala ematen du, definiziotik hasi eta hausnarketa batekin bukatuz.)
- Cultura Científica. (2015) «*Experimentación animal (I)* ». Lortua 2022/02/1 -an: <https://culturacientifica.com/2015/07/14/experimentacion-animal-i/>
(Gai honen inguruko historia zerbait kontatzen digu, noiz hasi zen eta nola joan den eboluzionatzen.)
- ETHIC. (2021) *¿Por qué la UE no acaba con los ensayos con animales*

uso cosmético?. Lortua 2022/02/1 -an:
<http://ethic.es/2021/10/ensayos-con-animales-en-europa-el-fin-que-nunca-lleg>

(Artikulu honek animalien esperimentazioaren aurka dauden legeak erakutsi eta azaltzen dizkigu. Zeintzuk eta nolako eraginkorrak diren.)

- ELSEVIER. (2000) *Normas éticas para el cuidado y utilización de los animales de experimentación*. Lortua 2022/02/1 -an:
<https://www.elsevier.es/es-revista-cirugia-espanola-36-articulo-normas-eticas-el-cuidado-utilizacion-8848>

(Artikuluak esperimentatuak izango diren animaliak nola zaindu azaltzen eta irakasten digu, eta etikari buruz ere hitz egiten digu.)

- Sinc. (2008) *El 76% de los Nobel de Medicina investigó con animales*. Lortua 2022/03/02
<https://www.agenciasinc.es/Noticias/El-76-de-los-Nobel-de-Medicina-investig-o-con-animales>

(Artikulu honek nobel sarien aurkikuntzetan animaliekin esperimentatzearen inguruko datu zehatzak ematen ditu.)

- The Conversation. (2021) *Experimentación animal, una práctica extremadamente regulada e indispensable para el avance científico* . Lortua 2022/01/24-an:

<https://theconversation.com/experimentacion-animal-una-practica-extremadamente-regulada-e-indispensable-para-el-avance-cientifico-171266>

(Testuak animaliekin esperimentatzea defentsatzen du, esaten du beharrezkoa dela eta oso regulatuta dagoela.

- UNAM. (2018) *Experimentos con animales, un dilema que se discute*. Lortua 2022/02/1 -an:
<https://www.fundacionunam.org.mx/unam-al-dia/experimento-con-animales-un-dilema-que-se-discute/>

(Artikulu honek animalien esperimentazioari buruzko ikuspuntu objektiboa ematen digu. Gainera, protestak eta ikerketa nola uztartu erakusten digu.)

BIDEO BATZUK:

- ▶ Experimentos de Harlow con macacos - el amor materno condicionado
- ▶ Técnicas Básicas en el Laboratorio de Neurociencia I. Cirugía estereotáxica. V...
- ▶ Dentro de una "fábrica" de ratones de laboratorio BBC MUNDO
- ▶ Salva a Ralph | Save Ralph en castellano

ERANSKINAK

Ikerketaren kontzeptu nagusiak:

Animaliekin esperimentatzea → Ikerketa osoan zehar “animaliekin esperimentatzea” terminoa erabili dugu, baina oso era espezifikoan. Termino hau (gure artikuluan) ez da mendira gure maskotekin joatea, ez da zoofiliko baten nahia asetzea, ezta beraien bizi-kalitatea hobetzeko esperimentazioak egitea, gurea baizik. Hau da, gure ikerkuntzan animaliekin esperimentatzeak beraien osasuna arriskuan jartzea eta horrela gurea hobetzea du helburu, horrelako praktikak laborategi itxi batean egiten dira, eta berez jakindunen eskutan.

Animali / Maskota → Maskota, etxeko animalia mota bat da, pertsonak etxean dutena, beraien konpainia partekatu eta gozatzeko, eta familiaren parte bilakatzeko, jabearentzat onura ekonomikorik izan gabe.

Animaliak ordea, ez dira gizakien etxeetan bizi, baina horrek ez du esan nahi ez daudela gizakiekin kontaktuan. Gaur egun munduko animalia gehienak giza-jokabidearen esku bizi dira, hala gertu nola urrun bizi, hala laneko animaliak izan nola inoiz gizaki bat ikusi dutenak izan.

Animaliak eta maskotak bereizteko modurik errazena, onurarik badagoen ikustea da, eta baldin badaude, norentzat. Nagusiki, maskotak izango dira, animalia horiek jabeei etxean laguntzeko eta maitasuna emateko helburua betetzen dutenak. Aldiz beste animaliek orokorrean ez digute onura sentimentalik emango.

Gure iritzia:

Pentsa ehunka pertsonaren bizitzak salba ditzakezula beste bakar bat akatuz. Kantek esango luke gaizki dagoela, modu kategorikoan ezin delako hil. Eta arrazoi du, ehun bizitza salbatzen badituzu ere, gaizki dago pertsona bat hiltzea. Baina ez litzateke okerrago egongo hainbeste jende hiltzen uztea, saihesteko aukera badago?

Baina nola dakizu ehun bizitzek batek baino gehiago balio duela? Demagun pertsona horrek minbizirako sendabide bat aurkitzen duela eta milioika pertsona salba ditzakeela hiltzen ez badute, orduan bizitza horrek beste ehunenak baino gehiago balio du?

Moralari buruzko etengabeko argudio eta kontra-argudio hauek, edozein izaki bizidunekin erabil daitezke. Baina animalien kasuan, ez dugu hainbesterainoko enpatiarik, ez zaigu hainbeste axola sagutxo bat hiltzea. Orduan, honen bizitzak gizaki batenak baino balio gutxiago du? Inorrek ezin dio erantzun finko bat eman galdera honi, baina gehiengoak baietz esango luke (guk barne).

Bestalde, gizakiaren historian zehar hainbat pandemia eta gaixotasun egon dira, eta hauei aurre egiteko erabili diren txerto edo medikamentu gehienak, animaliekin frogak eginez sortu ziren.

Gure ustez, moralki ez dago ondo beste baten biziarekin bukatzea zurearekin jarraitzeko, baina errealitateari begira eta naturak erakutsi digun moduan “biziraupen grin hutsa da”, baina edozein animalik bezala, edozer gauza egiteko prest gaude gure biziraupena bermatzeko. Ondorioz, animaliekin esperimentatzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu, beti ere legalki eta jakitunen eskutik.

Galdetegia:

https://docs.google.com/forms/d/15w1-0QRyZDnFWgrWi5wZp_6H90BMXSzJU7hWjXd5VbY/edit